

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 7ko 302/2020 Erabakia. Onestea Arabako Foru Suhiltzaileak (Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) erakunde autonomoko lanpostuen zerrenda aldatzea

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 27ko 93/2018 Erabakiaren bidez, onetsi zen Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoko indarreko lanpostuen zerrenda.

Beraz, onetsi behar da lanpostu zerrenda, aurretik azaldutako puntuetan aldatu baita.

Erakundeak ekonomista teknikari/goi-mailako programako bitarteko lanpostu bat sortu zuen, erakundearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioarekin lotutako zeregin teknikoak bere gain har zitzan. Programa sortu zenetik urte eta erdi baino gehiago igaro da, eta ikusi da lanpostuak garatzen dituen zeregin guztiak egiturakoak eta guztiz ezinbestekoak direla erakundearen funtzionamendurako, eta, aldi berean, ezin direla giza baliabideak arrazionalizatzeko edo antolatzeke beste bitarteko batzuen bidez bereganatu.

Ondorioz, programako bitarteko lanpostua finkatu behar da, eta ekonomista teknikari/goi-mailako lanpostua sortu, 2020rako Aurrekontua Gauzatzeko Foru Arauaren 24.5 artikulua-
ren arabera.

Gauzatu da langileen ordezkarietara negoziatzea.

Horregatik, Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren Kontseiluak proposaturik, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoko lanpostuen zerrenda; zehazki, Erabaki honen eranskinean adierazitako lanpostua.

Bigarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertzeke errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean; hori guztia honako hauek xedatutakoaren arabera: Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 7a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Oreekaren zuzendaria

JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA

